

## **EMAKUMEAK ALKARTASUN BARRIAN (2)**

**Erodias** (Erodes Antipas'en emaztea) (Mk 6, 19)

Herodias le aborrecia (a Juan el Bautista).

Lei: Halacotz Herodias ayher cayón.

Duv: Herodias horren gatik, Joannes galdu beharrez zabilan.

Ol: Argatik Erodia ataizean zebilkion.

E-B: Erodias'ek Jon'i amorrua eutsan.

**Febe** (Zenkreas'ko diakonisa) (Erm 16, 1)

Os recomiendo a Febe, nuestra hermana, diaconisa de la Iglesia de Cencreas.

Lei: Gommendatzen draucuet bada gure arreba Phebe, Cenchreco Elicaren nescato dena.

Duv: Gomendatzen darotzuet berriz, gure arreba Phebe, Zenkreasko Elizaren zerbitzuan dena.

Ol: Goraste dizuet gure arreba Pibe, Kenkereiko elizaren mirabea.

E-B: Zenkreas'ko elizaren laguntzaille dan gure arreba Febe'ren alde eskatzen dautsuet.

**Isabel** (Jon Bateatzailaren ama) (Lk 1, 24)

Días después, su esposa Isabel quedó embarazada.

Lei: Eta egun hayen ondoan haren emazte Elisabethen concebi cecan.

Duv: Egun horiez geroztik, Elizabeth, haren emaztea, izorra gerthatu zen.

Ol: Egun ayen ondoren Elizabet, aren emaztea, aurdun gertatu zan.

E-B: Egun batzuk geroago, aren emazte Elizabet seindun egin zan.

**Jezabel** (emakume sasi-profeta; irudizko izena,urrean) (Ag 2, 20)

Jezabel, esa tu mujer que se llama profetisa...

Lei: Iezabel emazteak (ceinec eguiten baitu bere burua propheta)...

Duv: Jezabel, bere burua profetatzat ematen duen emazteki bat, ...

Ol: Or bait-dabil Yezabel emakume ori igarle dala esaten, ...

E-B: bera profeta dala diñoan Jezabel zure emazteak...

**Joana** (Jesus'i jarraitzen eutsoen emakumeetarikoa) (Lk 8, 3)

Juana, mujer de Cusa, un administrador de Herodes, Susana, y...

Lei: Eta Joanna Herodesen procuradore, Chuz deitzen cenaren emaztea, eta Susana,

Duv: Joana, Herodesen etchegizonaren, Kusaren emaztea, Susana, eta...

Ol: ta Yone, Erodes'en etxezain Kusa'ren emaztea, Susane, ta ...

E-B: ta Yone, Erodes'en otseinburu Kusa'ren emaztea; Susana, eta ...

**Julia** (Errroma'ko kristau emakumea) (Erm 16, 15)

Recuerdos a Filólogo y a Julia.

Lei: Salutaitzague Philologo, eta Julia.

Duv: Agurrak Philologori eta Juliari.

Ol: Gorantziak Filologo ta Juli'ri.

E-B: Gorantziak Filologo ta Julia'ri.

**Kandaze** (Etiopar erregiñen izenburua) (Ap. Eg 8, 27)

... alto funcionario de Candace, reina de los etíopes,

Lei: Ethiopianoen reguina Candaceren azpian manamendu gucia cuenic,

Duv: Ethiopiako erregiña Kandazen azpiko handietarik,

Ol: Aitiopi'ko anderegoi Kandake'ren inguruko aundizki ta ...

E-B: Eta Etiopia'ko erregiña zan Kandaze'ren inguruko aundiki ta ...

**Klaudia** (Errroma'ko kristau emakumea) (Tim 2.<sup>a</sup>, 4, 21)

Te saludan... Claudia y todos los hermanos.

Lei: Salutatzen auté ... Claudiac eta anaye guciéc.

Duv: Klaudiak eta anaya guziek goraintzi.

Ol: Agur dagizue... Kalaudi andereak, eta senide guziek.

E-B: Agur egiten dautsue ... Klaudia'k eta anai guztiak.

**Kloe** (Korinto'n bizi zan emakumea) (Kor 1.<sup>a</sup>, 1, 11)

Me he enterado, hermanos míos, por los de Cloe, que existen discordias entre vosotros.

Lei: Ecen, ene anayeá, declaratu draudate cuecaz Chloes baithaco'ec, ecen discordiá diradela cuen artean.

Duv: Ezen, anayak, Kloeren etchekoek ene ezagutzera ekharri dute, eskatimak zuen artean badirela.

Ol: Koloe'nekoei entzunda bait-nago, ene senideok, zuenean eztabaidak dirala.

E-B: Zuen artean, ene anaiok, eztabaidak dirala jakin dot Kloe'nekoen bidez (Kloe'koen: irar-utsa).